

H4 Lursailen partzelazio-lizentzia (banantze edo elkartze-lizentzia).

Saila	Hirigintza
Zer da / Zertarako da	Adierazpen-izaerako administrazioako baimen hauek desberdinak dira lurzoruaeren arabera, orubeak edo lursailak, zatitzeko aukera ematen dute.
Nork eska dezake?	Lursailaren titularrak edo haren legezko ordezkariak.
Aurkeztu beharreko agiriak	<ol style="list-style-type: none">1. Eskaera-orria, eskabide orokorrari jarraiki egina; bertan, finkaren azalera osoa eta bereizi nahi den finkaren azalera osoa adierazi eta azalduko da.2. Eskatzailearen NANA.3. MEMORIA. Dagoen jatorrizko finka eta sorturiko lursaila deskribatuko dira bertan. Proposatutako lursail bereiztea justifikatzen duen eta oinarri duen plangintzaren zehaztapenetara egokitzen dela adieraziko du.4. Jabetza titulua edo Jabetza Erregistroaren Ziurtagiria aurkeztuko da; ukituriko finken jabetza gorabeherak, kargen egoera eta haien inskripzioaren funtsezko datuak azalduko dira bertan.5. Egungo egoeraren planoak, lursailaren mugak azalduko dira bertan, eta lursailaren eragina duten hirigintza zehaztapenak ere, hala behar badu. Aldameneko lursailen jabeak zein diren adieraziko da halaber.6.- Lursail zatiketaren planoak, egungo egoeraren planoaren eskala eta baldintza orokor berdinetan.
Non eskatzen da?	Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean (San Bartolome 2, astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:00era). OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi ez gero ordutegia astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:30era. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna. Hitz ordua eskatzeko telefono bidez: 943 697320 hirigintza@ibarra.eus
Zenbat kostatzen da?	Indarrean dagoen Ordenantza Fiskalaren arabera. 2016 73,43 euro
Prozeduraren epea	- Zenbatetsitako epea: hilabete. - Legezko gehieneko epea: hiru hilabete. - Administrazioaren isiltasunaren izaera ez onartua.
Araudi aplikagarria	- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 38-40. artikulua eta lege bereko 207. artikulua eta hurrengoak. - Indarrean dagoen udal plangintza. - 19/1995 Legea, uztailearen 4koa, nekazaritzako ustiapenei buruzkoa.

<p>Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskabide-orria eta agiriak jasotzea, eskaneatzea, egiaztatzea eta erregistratzea. 2. Eskatzaileari kopia zigilatu bat ematea, ziurtagiri gisa. 3. Hirigintza Sailari bidaltzea.
<p>Geroagoko izapideen laburpena</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Txosten teknikoa egitea. Eskabidea aztertu eta analizatzea, eta hirigintzako araudiari ondo egokitzen zaion egiaztatzea. Beste administrazio publiko batzuek txostena nahitaez egin behar badute, haiei eskabidearen berri ematea. 2. Organo eskudunak ebazpena ematea. 3. Kontu-hartzailetza Sailari bidaltzea, likidazioa egin dezan. 4. Interesdunari jakinaraztea. 5. Eskrituraren kopia baimendua aurkeztu eta inskriba dadin erregistroan aurkeztu denaren agiria. (3 hilabete) 6. Hiri ondasun higiezinaren gaineko zergan aldaketaren izapidetzea (3 hilabete) Landa ondasunak: R7 inprimakia
<p>Agiri lagungarriak</p>	<p>HIRIGINTZAKO ESKAERA ORRIA U-4 ereduaren arabeko inprimakia Inprimaki horiek hemen deskargatuz lortu ahal izango dira http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal/gipuzkoa/ogasuna edota baimendutako estankoetan</p>
<p>Nork onartu behar du?</p>	<p>Gobernu Batzordeak</p>
<p>Oharrak</p>	<p>-Tramitea behar bezala bideratzeko, edozein eratako dokumentazio osagarria biltzeko aukera izango du unitate tramitatuak.</p> <p>-Lursail bat bereizteko edo zatitzeko lizentzia ematen denean, hura beste lursail bati edo batzuei erantsi behar bazaie, eskaera egin duenak, zatitze hori formalizatzen duen eskrituraren kopia baimendua aurkezteko baldintza etenarazlearen pean geratuko da lizentzia hori. Eskritura publikoaren kopia lizentzia eman eta hurrengo hiru hilabeteen barruan aurkeztu beharko da, eta, hala egin ezean, lizentzia iraungiko da. Baldintza hori betetzen ez den bitartean egin gabetzat hartuko da eskatutako lursail zatiketa.</p>